

Laguntza-gida

1.- Bete ezazu “eskabide-inprimakia” autoformularioa eta telematikoki **bidali**, “posta elektronikoz bidali” botoian sakatuz. Zure ordenagailuan Microsoft Outlook instalatuta baduzu, Outlook zabalduko da, formularioko informazioa erantsiko da eta zuk mezu elektronikoa bidali behar duzu, besterik ez. Zure posta elektronikora Outlook Web Accessetik sartzen bazara edo beste web-posta batetik (Gmail, Hotmail, Yahoo,...) bidali nahi baduzu, lehenengo, formularioak sortzen duen fitxategia gorde behar duzu eta, ondoren, posta-programatik erantsi, eta prestakuntza@osakidetza.net helbidera bidali, gaian “Prestatzeko eta birziklatzeko laguntza-eskaera” jarrita. Bidali ostean, **inprima** ezazu kopia bat eta **sinatu**.

2.- Bete itzazu “Memoria” autoformularioaren hiru atalak eta inprima ezazu dokumentua.

3.- Inprima ezazu “Zuzendariaren txostena” eredua eta **entrega ezazu** zerbitzu-erakundean dagokizun **arloko Zuzendaritzan**, bertan bete dezaten. (Pertsonaleko Zuzendaritza, Zuzendaritza Medikoa, Erizaintzako Zuzendaritza edo Gerentzia Zuzendaritza (horrelako egiturarik ez duten zerbitzu-erakundeetan). Erakunde Zentralean lan egiten baduzu, Giza Baliabideetako Zuzendaritzara jo behar duzu.

***Garrantzitsua:**

- **Txostenarekin batera**, Memoria eta Ikasketa Zentroak ikasketa-programaz duen dokumentazio ofiziala entregatu behar dituzu (bestela, zuzendariak ezin izango du bere txostena egin).
- Txostena dagokion arloko **zuzendariak sinatu eta zigilatu beharko du**.

4.- Txostena bete, sinatu eta zigilatuta, **ORDENA EZAZU** derrigorrezko dokumentazioa honela:

1.- Eskabide-inprimakia, sinatuta.

2.- Dagokion ikasketa-zentroko organo eskudunak emandako ziurtagiri originala, zigilatua eta sinatua, eskatzaileak ikasketa horiek, zeinetarako laguntza eskatu baitu, amaitu dituela egiaztatzeko. Tituluaren edo diplomaren fotokopia konpultsatua ere onartuko da.

3.- Matrikula ordaindu izanaren egiazttagiri originala, bankuko abonu-agiria aurkeztuta; edo ordainagiri originala, ordaindu izanaren egiazttagiriarekin; edo ordainketa egiaztatzen duen ziurtagiri originala, ikasketa-zentroko organo eskudunak zigilatu eta sinatutakoa.

4.- Arloko zuzendariak zigilatu eta sinatutako txosten originala.

5.- Memoria.

6.- Ikasketa-zentroaren dokumentazio ofiziala ikasketa-programari buruz.

eta **AURKEZ EZAZU ezarritako epean***, Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako erregistroan, edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein tokitan, **Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako Dibisioko zuzendariari helarazteko** (Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboa, Álava kalea 45, PK 01006, Vitoria-Gasteiz).

Eskabideak aurkezteko epea: **2014ko uztailaren 29tik irailaren 30era (biak barne).**

Eskaera egiten duen profesionalak **jardunean** egon behar du **eskabidea erregistroan aurkezten duenean**.